

Enpresa txikiak zailtasun handiak dituzte salmenta arrakastatsuak izateko. Guk bertakoei lagundu nahi diegu, hau da, gure bezeroak enpresa txikiak dira, herriko lokalak. Bestalde, fidelizazio txartela erabiliko duten bezeroak ere ditugu.

Adinari edo sexuari dagokionez ez dago merkatu segmentaziorik. Edozeinek du aukera gure zerbitzuak eskuratzeko. Fidelizazio-txartelen konpainia dela eta, plataforma edo merkatu multilateral da, hau da, erabiltzaile segmentuak desberdinak izan arren, negozio eredu berean daude.